

NEMESIO ETXANIZ, OLERKARI

(Azkoiti, 1987'ko azaroaren 28)

Jaun-andreok Erritar bat, apaiz bat, olerkari bat goستن gagoz. Zuok geienok ezagun zenduen On Nemesio, Deba'n eta Donostia'n bizi izan arren, bertoko semea zalako: gizaseme jator, alai, euskaltzale langilea; nik, ala re, poeta bezala jarriko dizuet begien aurrean.

Eta nire lenengo galdera: Zer da poeta edo olerkari izatea? Zapatak egiten dituanari zapatari esaten diogu. Era berean, bertsoak ontzen dituanari bertsolari, olerkari; Etxaniz'ek bai, beste zer askoren artean olerkiak egiten zituen.

Olerkiak, ordea, ez ditu edozieñek ontzen. Irudimen bizia bear da orretarako, anima leun, gozo, sentikorra, eta ikasiz lortzen dan poesi-teknika. Gauza auen jabe zan Etxaniz bera olerkietatik atera dezakegunez: irudimen azkarra zuan, bizia, saltariffa, eta anima legun sentikorra. Edozein poetak euki bear duen izkuntza jakintza ere bai, etxean ikasiaz gain berak irakurriz eta idatziz lortutako euskera bizkor, gozo, errezaren jabe zan. Beraz egi-egiazko olerkari genduan Etxaniz.

Eta zer abesten du olerkariak? Goi-goiko ibilli oi dira batzuk, arrano egalari eran, eta orra iritxi nairik dabilzkigu poetarik geienak. Olerkariak, izan be, ez dira edozer gauza goiak argitutako izakiak baiño, ta alegiñak egin bear goiak zear ibiltan.

Olerki guztiak dira bein-beiñeko, orduan orduko ta tokian tokiko. Poesiak, baiña ez du bee-beeko, prosaiko, izan bear. Iturris bai, ura artzen dan sorburua izan daiteke angoa naiz emen-goa, eguneroko bizi-moduak aurrean ipiñitako zerbait. Gure pentsamentu sakon liraiñak, gure biozkada gozo-mergatzak, jantzi sorgin lillurakorrez emanak, eguneroko gertakari bat ezaldu dezakegute.

Auxe dugu egiazko olerkia. labur, azkar, eder esana; egunero-
roko bizia edo jazioa, arnasa duen zerbait, ez ifiolaz ere illa, ezer
esaten ez diguna, animaduna baizik. Olakoxea da, egia esateko,
Etxaniz'en olerkia.

Naiko ongi ezagutu nuen nik Etxaniz, Larrean eta Donos-
tian. Larrean Olerti-Egunez eta Donostian, beti egin oi niolako
ikustalditxoren bat Easo-rantza iritxi oi nintzanean, eta geienez
poesi-goraberak zirala-ta. Olerti-Egunak urteetan ospatu izan
ditugu Larrean, eta ia beti, berak mezako itzaldia, baita sariak
banatu ostean eta bazkariari berea emon ondoren ere, ainbat
olerki abestu bear izaten zizkigun. Txori kantariak berez du
kantatzen, baita Etxaniz'ek ere.

Ontaz gaiñera, entzun nerekin izandako bi gertaera.

Bata 1964'an Larrean, Olerti-Egunez. Goizean goiztik biz-
kor etorri zan Etxaniz, ez dakir zergatik. Meza aurretik neure li-
burutegira eraman nuen. «Orixe», bion adiskide zintzoa, illa zan
orduko. Omenaldi bat egin bear geniola-ta, bat etorri giñan.
Antxe aukeratu genitun omenaldi-liburuan parte artuko zuten
idazleak ere: neronek dei egingo nizkien. Eta orrelaxe mamitu
zan arako liburu ederra, beste askoren artean Etxaniz'ek «Orixe
gizon» eta nik «Orixe olerkari» idatzirik.

Beste bein, sariketa baten, alkarrekin topo egin genuen
Baiona'n. Ni «Agirre-Saria» jasotzera joan nintzan eta Etxaniz
»Ohorezko Aipua» artzera. Bi liburu zeuden aurrez aurre, nire
«Gure Bertsolariak» eta aren «Lur berri-billa». Egin ziran itzal-
diak, ark eta besteak au ta ori esanik. Baita Etxaniz'ek ere; poliki
zion berak bi praillekin gorrotoan bizi zala. Zergatik ote? «Euz-
ko-Gogoa-k Guatemala'n J. Zaitegi'k aurreratxoago olerki-
sariketa ospatu zuenean, Aita Mitxelena'k eraman zion saria, eta
orain Aita Onaindia'k, beste praille batek. Eta bere liburu ederra
erakusten zuen. Azkoitiarra, alan ere, etzan gauza gorrotorako:
beti izan giñan adiskide onak.

Izadian bizi gara, mundua deritzaigun biribil onek barne-artuta. Eder-ederra dan munduaz ar-emanetan gaude; berau begitu, entzun, ikutuz barrua dardaratzen zaio Etxaniz'i, olermena bizkor-azi; etxean, elizan, jendartean ibilliz, irakurri ta itzaldiak entzunez, arro ta gori jartzen zaio barne-muiña, eta orra olerkaria, luma atz-artean duela, oler-lan bipilla osatzen.

Esan dut, eder-zalea zan Etxaniz, izaditik jasotako bitxiz olerkiak euntzen zituna. Entzun onako bat askoren artean auke-ratua. Jolasean dabilta aurtxoak erreka ertzean; bakoitzak bere lorea du eskuan, eta azkenez uretara botatzen dituzte urak eram ditzan. Eta olerkariak kanta:

«Errelatxo kantari, / gulu, gulu, gulu;
aurtxoak inguruan / jostatu oi degu.
Gulu, gulu, gulu, / gulu, gulu, gulu;
errekatzok an du / bere zurru-murru.
Aurtxoak lore bana / dute eskuetan;
bildua inguruko / zelai ederretan.
Orra nik larros gorri, / orra nik lilia,
erreka jolasari / gogoz eskeiña.
Ur lasterrarekin / doaz guziak...
larrosa gorri eta / lili txuriak.
Oa errekatxo, / lorez jantzia!
Ametsez bete dek / ire bizia.
Loretxoak -ai, ene!- / gulu. gulu, gulu...
uretari -ai, gaixoak! / ondatu zaizkigu».

Onakoak ditugu Etxaniz'en olerkirik geienak, arin, polit, jostariak.

Azter dezagun poematxo au, pizkat beintzat, bat aztertu ezkerre, besteak ere orobat ditugulako. Zortziko txikia duzu. Eta zer dira zortziko txikia ta aundia? Gure aizkoitiarrak bi neurri auek darabiltza geienbat. Txikiaren naiz aundiaren estrofa lau naiz zortzi bertso-lerro euki litezke. Aipatu doguna txikia duzu:

«Errekatxo kantari,
gulu-gulu, gulu;
aurtxoak inguruan
jostatu oi dugu»

Beste au, ordea, nagusia:

«Bidez zijoan pinpirin-pirin
esne-saltzaille liraiña,
esku batean ontzia, eta...
ba-zirudian panpiña».

Nagusiak amar ta zortzi (10/8) silaba dauzka, erdian etenarekin. Txikiak zazpi ta sei; eztu etenik bear. Ona kantuz zortziko nagusi bat, Iparragirrek abestua: «Ara nun diran / mendi maiteak ara nun diaran / zelaiak». Punturen baten uts-egifrik, ez letorke ongi kantatzeko. Etxaniz'ek, ene ustez, pot egiten dau aipaturiko bost eta seigarren estrofan: «doaz guziak», «lili txuriak», «lorenz jantzia», «ire bizia», bost silaba baiño ez dituzte, sei bear lituzkelarik.

Etxaniz'ek, 1967'an, liburu eder bat argitaratu zigun «Lur berri billa». Antxe datoz bere olerki geienak ere, sail bitan: Olerkiak lenengo ta Abestiak gero. Iru moltzotan banandu zintun olerkiak; lenengo sailak 9 koplak dauzka, bigarrenak 31 ta irugarrenak 9. Abestiak sail bitan datoz: *Aur-abestiak* (19 koplak musika ta guzti) eta *Gazte abestiak* (52 koplak musika ta guzti).

Gure olerkariak pianua zeukan etxean. Eta gogoak ematen zionean, loreskin aren aurrean exeririk, poesiari ta musikeari ekiten zion, bi arte-mota auek alkarrekin uztarturik. Sekulako poza ta atsegiña somatu oi zuen onakoetan.

Goiz baten, urbilleko moja-komentuan meza eman ondoren, etxerantza zijoala, umezurtz bat ikusi zuen euritan, biotza errukitu ziona. Gosaldu ostean, pianuan jarri ta kantari, «Umezurtza» zeritzan koplak bikaiña eundu zigun. Ona:

«Kale zokoan illun da gogor euria;
ate ondoan aur bat da otzak josia.

Umeczurtxoak aterpe epelik inun ez;
Aingerutxoa aren ondoan negarrez.

Ipar aizeak kale zokoan intziri;
euri ur-tantak oiñazaz malko itzuli.

Ama zerutik semetxoari begira:
—«Aingerutxu oi! Ekark semea zerura»

--Aurtxo maitea, amarengana igo nai?»
Aurtxo gaixoak Aingeruari-- «Enc, bai!»

Egan da egan zeruruntz Aingerutxoa.
Egan da egan, aremin ume gaixoa.

Zeru bidean izartxoak aiengana:
--«Bai ume ederra zerura gaur dijoanab»

Zeru atean ama laztana bien zai.
Seme kuttuna bere besotan artu nai.

Kale zokoan illun da gogor euria.
Ama-semeak goian betiko zoria!

Entzun beste au ere, polita da-ta, edonori gertatua.

«Ain urruti ta ain urbil!
Au izan den gure gurpil.

Ogei urte dizkiñagu
alkarren albo lanean.
Nik, ire gose biotzean:
ik, nere egarri ixillean».

Zazpi estrofako olerki bigun-samurra.

Beste au, «Usoak luma-arro» deritzana, 1971'an, «Karmel»-
en datorrena duzute. Abesteko egiña, Etxaniz'en geienak bezala.
Illoba bat zuen urruti samar zebillena. Azkenez egin zuen bere
kabia Oar olerkariaren sentipenak.

Illoba bat nuen, / urruti zebillen.
Ai, biotza! Ai, biotza! / urruti zebillen.
Nexka loxinketan, / milla baztarretan.
Ai biotza! Ai, biotza! / guzia alperrikan.
Gurru-gurru, gurru-gurru...

Errira itzulean, / ametsak aldean.
Ai, biotza! Ai, biotza! / ametsak aldean.
Ta Udaberria zai, / zelaiak lore-jai.
Ai, biotza! Ai, biotza! / zelaiak lore -jai.
Gurru-gurru, gurru-gurru...

Errian zun nexka, / arek sortu kezka.
Ai, biotza! Ai, biotza! / arek sortu kezka.
Jaso du uztarria, / bero da kabia.
Ai, biotza! Ai, biotza! / bero da kabia.
Gurru-gurru, gurru-gurru...
Biotzak ames du.
Gurru-gurru, gurru-gurru...
Lotara goaz gu.
Lotara goaz gu».

Begitu, ikusi ta ibilliz adimena arrotzen, eta biotza goritzen.
Eta adimenaren eta biotzaren frutua dugu olerkia. Olan dager-
kigu Etxaniz, zentzu-espíritu zorrotz argiko. Igarle, olerkari...

Ona beste misterio izugarri bat ere: aragi ta espirituaren ar-
teko nastea azkenez ederrenaren oiñarri. Ederra ezin dut berezi
nere begiak jaso koloretik, eta nere belarriak artu doiñutik.

Amaituz, auxe duzute N. Etxaniz adimen, biotz, dantzari.
Aragia ta espíritu, biak batera.

Aita Onaindia